

Euskara



Baliabideen eta zerbitzuen gidaliburua

Zer egin emakumeen aurkako indarkeriaren aurrian?

Deitu

900 840 111

zenbakira eta informa zaitez

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**EUS
KADI
.EUS**



<http://www.euskadi.eus/gizartezerbitzuak/>

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak
sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/>
WebOpac

Emakumeen kontrako indarkeria sufritzen ari bazara edo susmo hori baduzu...

Argitaraldia: 1.a, 2019ko apirila

Ale-kopura: 50.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazioa

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren
Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del
Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010
Vitoria-Gasteiz

Diseinua: Diagonal (www.diagonal.es)

Inprimaketa: Gráficas Dosbi, S.L.

L.G.: VI 244-2019

- Gogoratu **ez zaudela bakarrik** 4
- **Zer egin emakumeen kontrako indarkeria
sufritzen ari bazara edo susmorik baduzu?** 5
- **Arriskuan** bazaude, deitu 112 zenbakira edo joan
gertuen duzun Ertzaintzaren komisariara! 6
- **Lesioak** badituzu, zure osasun zentrora joan
edo deitu 112 zenbakira! 7
- **Informazioa** nahi baduzu deitu **900 840 111** zenbakira!
Profesionalekin berehala, konfidentzialki eta anonimoki hitz
egin ahal izango duzu 8
- Aurrez aurreko **arreta** nahi baduzu hitzordua eska dezakezu
Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan (BLZ) edo zure udaleko
gizarte zerbitzuetan 9
- **Zerbitzu eta baliabideak** (laguntza ekonomikoak, etxebizitza,
lana eta prestakuntza, hezkuntza) 11

DEITU 900 840 111 ZENBAKIRA ETA INFORMA ZAITEZ

Aholkularitza teknikoa **945 019 327 / 945 019 316** Aholkularitza juridikoa
violenciacontramujeres@euskadi.eus

GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

(Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)

EUSKO JAURLARITZA

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz



<http://www.euskadi.eus/gizartezerbitzuak/>



Emakumeen aurkako indarkeria pairatzen ari zara, baldin eta:

- **Indarkeria pairatu baduzu edo pairatzen ari bazara zure bikotekide edo bikotekide ohiarengandik.** Indarkeriak ez du zertan eraso fisikoa edo sexuala izan behar soilik. Jakin ezazu indarkeria pairatzen ari zarela baldin eta, zure ustez, zure bikotekideak edo bikotekide ohiak:

kontrolatu egiten bazaitu: deitu egiten dizu, SMSak edo mezu elektronikoak bidaltzen dizkizu, behin eta berriz; WhatsApp-ez kontrolatzen zaitu edo sare sozialetan dituzun profilak begiratzen ditu; azalpenak eskatzen dizkizu, ea nora zoazen eta norekin, edo zer egiten duzun edo zer esaten; dirua kontrolatzen dizu; edo nola jantzen zaren kontrolatzen du, eta jantzita daukazun arropa gustatzen ez bazaio, aldatzeko eskatzen dizu; edo

bakartu egiten bazaitu: ez du gustuko lagunak izan ditzazun, ez du nahi zure familiarekin egon zaitezten, edo mespretxatu egiten zaitu beste pertsona batzuen aurrean, garrasi eta agiraka egiten dizu etengabe, zure errua dela edo beti tronpatzen zarela esanez; edo

Ikaratu egiten bazaitu: beldur diozu; iraindu egiten zaitu edo umiliatu; mehatxatu egiten zaitu bere burua hilko duela edo seme-alabekin geratuko dela esanez; dokumentazio garrantzitsua atxikitzen dizu (hala nola pasaportea edo banku-libretak); hertsatu egiten zaitu; xantaia egiten dizu, eta abar.

Ez badizu laguntzarik ematen: jateko, medikatzeko, zure higienarako, transferentziak egiteko, eta abar.

- **Indarkeria fisikoa, psikologikoa edo sexuala** pairatzen baduzu edo pairatu baduzu, zure bikotekidea edo bikotekide ohia ez den familiako gizonetako batengandik.
- **Sexu-askatasunaren kontrako delituren baten biktima** bazara edo izan bazara: sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena, sexu probokazioa eta exhibizionismoa, prostituzio behartua, sexu-esplotazioa, adingabeen galbideratzea eta emakumeen genitalen mutilazioa, emakumeen eta neskatilen salerosketa, ezkontza behartuak, nahitaezko esterilizazioa ...
- **Desgaitasunen** bat baduzu eta indarkeria fisikoa, psikologikoa edo sexuala edo zaintza-gabezia edo zabarkeria pairatu baduzu inguruko norbaitengandik (izan daiteke etxebizitza edo egoitzako kide bat, zaintzailea, tutorea, osasun-arloko langilea...).
- Sentitzen baduzu **zure lan-ingurunean** jazarri egiten zaituztela, sexualki edo emakume izateagatik.

Gogoan izan:

- **Emakume guztiok** indarkeriarik gabeko bizitza bat izateko eskubidea dugu; ez izan beldurrik egoera irregularrean bazaude.
- **Zeuzara** zure bizitzaren **jabe**, zure gorputzaren jabe, eta zeuk erabakitzen duzu zer egin nahi duzun.
- Zure **seme-alabak** askoz hobeto egongo dira zu hobeto bazaude: kontuan hartu haiek ere indarkeria horren zuzeneko biktimak direla.
- Ez kasurik egin klixeei edo egin behar zenukeen horri.
- **EZ esateko eskubidea** duzu; beraz, izan konfiantza sentitzen duzun horretan; zerbaitek ez bazaitu konbentzitzen, ez izan zalantzarik: Esan **EZ!**
- Garrantzitsua da pertsona zaurgarritzat hartu ez zaitzaten. **Egin aurre** egoerari. Horrela **babestuko** duzu zure burua.
- Konfiantzazko norbaiti zer gertatzen zaizun esatea bide egokia da aurrera eragiteko. **Bilatu babes**a lagun batengan (neska zein mutil), zure familiako norbaitengan, auzoko norbaitengan edo profesional batengan.
- Gogoan izan prozesua gogorra izan daitekeela hasieran, baina denborak aurrera egin ahala poztu egingo zarela zure **bizitza aldatzeko erabakia** hartu izanaz.
- Zu orain zauden egoeran emakume asko daude edo egon dira, edozein dela ere adina, egoera soziala edo nazionalitatea.

**EZ ZAUDE
BAKARRIK!**

EZ! Esateko
eskubidea duzu

Zer egin emakumeen aurkako indarkeria pairatzen ari bazara edo horren susmoa baduzu?

- **Arriskuan bazaude, deitu 112ra! ERTZAINZA** berehala joango da, eta zure kasurako egokienak diren neurriak abiaraziko ditu (6 or.) edo, bestela, '112 SOS Deiak' app-ean sar zaitzete (http://www.euskadi.eus/web01-a2bapps/eu/contenidos/informacion/app_sosdeiak/es_tecnol/index.shtml) baldin eta aurretiaz deskargatuta baduzu, eta hor aukera izango duzu komunikatzeko, bai hitzez, bai mezu bidez (baldin eta une horretan ezin baduzu hitz egin edo entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna baduzu). Mugikortasun urria baduzu, jakinarazi.
- **Lesio fisikoak edo psikikoak badituzu** edo susmo hori baduzu, joan zaitetz **OSASUN-ZENTRO EDO OSPITALE batera**, eta esan nork eragin dizkizun lesio horiek. Txosten medikoaren kopia emango dizute, eta lesioen partea dagokion epaitegira bideratuko dute. (7 or.)
- **Zure kasua profesionali KONFIDENTZIALKI planteatu nahi badiezu**, zalantzak badituzu gertatzen zaizuna indarkeria ote den edo aholkua behar baduzu arazoa konpontzeko zer aukera dituzun jakiteko, deitu telefono honetara: **900 840 111** (24 orduko zerbitzua). Zerbitzu horretan, entzun egingo dizute, eta aholku eta informazioa emango dizute zure eskubide guztiei eta baliaigarri dituzun zerbitzuei buruz. Beste zerbitzu batzuetara ere bideratuko zaituzte, beharrezko izanez gero, eta zure prozesu guztian telefonoz lagunduko dizute, hala nahi baduzu. (8 or.)
- **Zure kasua profesionali AURREZ AURRE planteatu nahi badiezu, hitzordua eska dezakezu zure udaleko edo mankomunitateko gizarte-zerbitzuetan**, eta hor esango dizute zer eskubide dituzun, zer baliabide eta zerbitzu erabil ditzakezun (aldi baterako ostatua, behar izanez gero; laguntza psikologikoa; aholkularitza juridikoa, eta abar), eta laguntza eta aholkua emango dizute zure bizi-kalitatea hobetzeko hartu beharrezko erabakiei buruz. (9 or.). Zure lurralde historikoko **Biktimari Laguntzeko Zerbitzura (BLZ)** ere jo dezakezu (**Araba: 900 180 414; Bizkaia: 900 400 028, eta Gipuzkoa: 900 100 928**). Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu horrek behar duzun informazioa eta laguntza emango dizu (laguntza soziala, juridikoa eta psikologikoa). Behar dituzun zerbitzu eta baliabideetara ere bideratuko zaitu. (10 or.)



Eusko Jaurlaritzak eta beste erakunde batzuek zure eskura jartzen dituzte zerbitzu eta baliabide horiek.



Arriskuan bazaude...

Deitu 112 zenbakira edo joan hurbilen duzun ertzain-etxera edo kontaktatu SOS DEIAK! aplikazioarekin. (Aplikazio hori egokituta dago entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna duen emakumeentzat). Desgaitasunen bat baduzu, jakinarazi.



DEITU 112! ZENBAKIRA

harremanetan, nahi izanez gero; batez ere, ostatu hartzeko urgentzia baduzu.

- Jarraipen pertsonalizatua eskainiko dizu, eta **babes-neurri** egokienak hartuko ditu, daukazun arrisku-mailaren arabera.
- Aplikazio bat eskainiko dizu, zure mugikorrean deskargatzeko, eta zurean instalatu ezin bada, telefono bat, arriskuan zaudenean zuzenean konektatu zaitezzen zure ertzain-etxearekin eta **24 orduko Telefono** bidezko Arreta-Zerbitzu Espezializatuarekin, besteak beste. Behar izanez gero, bietan lokalizatu ahalko zaituzte GPS bidez.
- Gainera, zure mugikorrean '112 SOS Deiak' aplikazioa deskargatzen baduzu http://www.euskadi.eus/web01-a2bapps/eu/contenidos/informacion/app_sosdeiak/es_tecnol/index.shtml, larrialdi batean Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin komunikatu zaitezke, hitzez edo mezuz (une horretan ezin baduzu hitz egin edo entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna baduzu). **Gaituta eduki zure telefonoko GPS lokalizatzailea.**



ERTZAINTZAK:

- Artatu egingo zaitu larrialdi bat bada.
- Eguneko **24 orduetan** hartzen ditu salaketak.
- Nahi izanez gero, **abokatu** bati deituko dio, informazioa eman diezazun salaketa jarri baino lehen eta salaketa jartzeraokan, bai genero-indarkeria kasuetan, bai sexu-indarkeria kasuetan, eta informazioa eman diezazun, halaber, babes-agindua eskatzearen inguruan, bai zigor-arloko neurrietarako (prebentziozko espetxealdia, urruntze-agindua, komunikatzeko debekua, etab.), bai behin-behineko neurri zibiletarako (familia-etxebizitzaren erabilera, seme-alaben zaintza eta bisita-erregimena, mantenu-pentsioa, etab.).
- Udaleko edo aldundiko **gizarte-zerbitzuekin** jarriko da

Arrisku-egoeran bazaude, ez izan zalantzarik, laguntza bila atera: auzokoengana edo kalean dabilen jendearengana.

Arriskuan bazaude...

Deitu 112ra edo konektatu SOS DEIAK aplikazioarekin (egokituta dago entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna duten emakumeentzat).

Laguntza medikoa behar baduzu, osasun-zentro batera lagunduko dizute.

Desgaitasunik eta laguntza-premiarik behar baduzu, jakinarazi.

- **Lesio fisikoak badituzu, bai eraso fisikoek eragindakoak, bai sexu-abusu edo -erasoek eragindakoak,** edo halako lesioak dituzula uste baduzu, joan zaitetz OSASUN ZENTRO EDO OSPITALE BATERA, eta azaldu zerk eragin dizkizun lesio horiek.
- **Sexu-indarkeriaren kasuan:** ez urik edan, ez joan komunera, ez dutxatu eta ez aldatu arropa. Ginekologia zerbitzuak eta auzitegi-medikuntzako zerbitzuak elkarrekin artatuko zaituzte.
- **Txosten medikoaren kopia emango dizute.** Salaketa jarriz gero, baliagarri izango duzu epaiketean.
- Handik, **dagokion epaitegira bidaliko dute lesioen partea.**
- **Gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarriko zaituzte,** behar izanez gero.
- Zure osotasun fisikoa arriskuan badago, **bertaratzeko** eskatuko zaio **Ertzaintzari.**

Informazioa nahi baduzu...



Deitu 900 840 111 zenbakira, baldin eta profesionalekin berehala, konfidentzialki eta anonimoki hitz egiteko beharra baduzu; eguneko 24 orduetan dei dezakezu.

Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako informazioko eta telefono-arretako zerbitzu espezializatua (SATEVI), **24 ordukoa**, erabil dezakezu, baldin eta:

- **Informazioa** behar baduzu (berezik, lan-ordutegitik kanpo eta/edo jaiegune-tan), zerbitzuei eta baliabideei buruz (zerbitzu eta baliabide sozialak, sanitarioak, judizialak, polizialak, eta abar).
- **Blokeatuta** edo **beldurtuta** bazaude.
- **Zalantzak** badituzu edo **lotsatuta** bazaude, beldur bazara edo seguru sentitzen ez bazara.
- Norbaitek **entzutea nahi** baduzu, siltasuna haustea nahi duzulako.
- Beste erabaki batzuk hartu nahi dituzulako.
- Aurrez aurreko beste arreta-baliabide batera bidera zaitzaten nahi baduzu, zure egungo egoera dela-eta zure premietara hobeto egokitzen delako.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eskura jartzen dizu telefono-zerbitzu espezializatu hori. Biktima diren emakume **GUZTIAK** artatzen ditu, eta, baita ere, emakume horien inguruko senideak eta gertukoak eta informazioa edo aholkua eskatzen duten profesionalak.

- Zerbitzua berehalakoa da, anonimoa, konfidentziala eta doakoa, eta **ez du arrastorik uzten** telefono-fakturari.
- Eguneko **24 orduetan** erabil daiteke, urteko 365 egunetan.
- **Profesional** espezializatuak daude.
- Zerbitzuak **51 hizkuntzatan** erantzuten du, eta prestatuta dago **entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna** dutenak artatzeko, kanal espezifiko baten bitartez.
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima izan emakumeak ez ezik, egoera hauek jasaten dituztenak ere artatzen ditu:
 - indarkeria fisikoa, psikologikoa edo sexuala edo zaintza-gabezia, bikotekide edo bikotekide ohi ez den familiako edo **zure inguruneko** gizon batek eragindakoa.
 - erasoa, abusua, jazarpena, sexu probokazioa eta exhibizionismoa, prostituzio behartua, emakume eta neskatilen salerosketa, emakumeen genitalen mutilazioa eta ezkontza behartuak, besteak beste.
 - sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, lan-eremuan

Aurrez aurreko arreta nahi baduzu...

Hitzordua eska dezakezu zure udaleko edo mankomunitateko gizarte-zerbitzuetan, eta hor honako hau eskainiko dizute:

- **Laguntza eta aholkuak**, zer pasatzen zaizun aztertzeko eta zure bizi-kalitatea hobetzeko zer erabaki hartu behar dituzun pentsatzeko laguntzeko.
- Behar bazenu, **beste baliabide edo zerbitzu batzuei buruzko informazioa** eta horietarako sarbidea: aldi baterako ostatua, zerbitzu juridikoak, psikologikoak, sozioedukatiiboak, etxebizitzarakoak, enplegurakoak... etab.
- **Dituzun eskubideei** buruzko informazioa.

Indarkeria prebenitzen eta indarkeriaren biktimak artatzen diharduten **ELKARTEETARA** ere jo dezakezu babes bila. Horrelako elkarteetan, laguntza eta informazioa emango dizute dituzun eskubideen inguruan, eta zure burua indartzeko prozesuan lagun zaitzakete.

Desgaitasunen bat baduzu, elkarte horiez gainera, desgaitasuna duten pertsonen entitateetara ere jo dezakezu.

Gainera, elkarten bidez zure eskariak entzuz egingo dira **EMAKUNDE**ren Aholku Batzordean eta beste solasaldi-gune batzuetan.

Emakunderen web-ean, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio espezifikoa lor dezakezu: baliabideen mapa, datuak, txostenak...; halaber, ahalduntzeari eta parte-hartzeari buruzkoak: EAEko Elkarten Gida, ahalduntze-eskolak...

 **emakunde@euskadi.eus · <http://www.emakunde.euskadi.eus/hasiera/> · 945 01 67 00**

Ahalduntzea prozesu jarraitua da; horregatik, autodefentsa feministari eta ahalduntzeari buruzko tailerrak eta bestelako batzuk lagungarri izango dituzu bizitza hobetuko dituzten erabakiak hartzeko. Tailer horiek eskaintzen dira bai elkarten bidez, **BAI UDALETAKO ETA FORU ALDUNDIETAKO** berdintasun-arloen bitartez.



Hitzordua eska dezakezu **BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAN (BLZ)**; zerbitzu horiek **GASTEIZ, BILBO, BARAKALDO ETA DONOSTIAKO** justizia-epaitegietan daude.

Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzak zure eskura jartzen du zerbitzu hau; **doakoa da, konfidentziala, indibiduala eta pertsonalizatua**, bai salaketa jarri baduzu, bai jarri ez baduzu. **Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan, honako hau lor dezakezu:**

- **Orientazioa, salaketa jarri baino lehen**, eta, salaketaren segimendua egitea, prozesua amaitu arte.
- Orientazioa, delituak eragindako ondorioei ahalik eta ondoen **nola aurre egin** jakiteko.
- Informazioa, **prozesuko tramiteei eta dituzun eskubideei buruzkoa** (doako laguntza juridikoa, laguntza ekonomikoak eta baliabide psikosozialak).
- **Laguntza psikologikoa eta soziala**, behar izanez gero.
- Eskumena duten gizarte-zerbitzu edo **osasun-zerbitzu** egokietara bideratua izatea, beharrezko izanez gero.
- **Prozesu horietan guztietan lagunduta egotea**; batez ere, prozesu judizialean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, hemen sartu:

www.justizia.eus/biktima



Hitzordua eskatzeko:

Araba:

900 180 414 (doakoa)
945 00 48 95
Justizia jauregia
Gasteiz hiribidea 18
01008 **Gasteiz**



Bizkaia:

900 400 028 (doakoa)
94 401 64 87
Justizia jauregia
Ibáñez de Bilbao, 3-5
48001 **Bilbo**

94 400 10 31
Justizia jauregia
Bide Onera z/g
48901 **Barakaldo**



Gipuzkoa:

900 100 928 (doakoa)
943 00 07 68
Justizia jauregia
Ama Teresa Kalkutakoaren plaza 1
20012 **Donostia**



Ordutegiak:

Astelehenetik ostiralera,
09:00 - 14:00.
Astearte eta ostegunak,
16:00 - 18:30.
Uztaila eta abuztua,
09:00 - 14:30.

Zerbitzu eta baliabide hauek lor ditzakezu:



Laguntza ekonomikoak:

- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak **ordainketa bakarreko laguntza** kudeatzen du. Laguntza hori jasotzeko eskubidea duzu, baldin eta:
 - bikotekideak edo bikotekide ohiak eraso egin baduzu
 - horrekin harremana behin betiko amaitu baduzu
 - Genero-indarkeriaren biktima izatearen ziurtagiria baduzu (indarrean, eta epaitegian gehienez ere orain urtebete emana);
 - EAeko erroldan gutxienez 6 hilabeteko antzinatasuna baduzu eta benetako bizilekua.
 - ezarrita dauden diru-sarrera maximoak gainditzen ez badituzu
 - ez baduzu lanik egiten eta genero-indarkeria dela-eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboa (GEA) ez baduzu jasotzen edo jaso ez baduzu.
- **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)** jasotzeko eskubidea duzu, baldin eta betekizun hauek konplitzen badituzu:
 - Genero-indarkeriaren biktima izatearen ziurtagiria izatea.
 - EAEn gutxienez urtebetez erroldatuta zaudela eta benetako bizilekua bertan duzula egiaztatzea.
 - 18 urte izatea, gutxienez.
- **Gogoan izan baldintza hauek:**
 - Ez da beharrezkoa bizikidetzaren unitatea urtebete lehenago sortua izatea.
 - Indarkeria-egoeraren ondorioz zure ohiko bizilekua utzi behar izan baduzu eta senide, lagun edo beste norbaiten etxera joan behar izan baduzu, pertsona horien diru-sarrerak ez dira zure sarreratzat hartuko denbora batez.
 - Genero-indarkeriagatik beste laguntzaren bat jasotzen baduzu (ordainketa bakarreko laguntza edo Gizarteratzeko Errenta Aktiboa, genero-indarkeria dela-eta), jasotako zenbatekoa ez da diru-sarreratzat hartuko DSBERako.
 - DSBE prestazio baten titularra izateak aukera emango dizu zure inklusio-prozesuan laguntza indibidualizatua jasotzeko, genero-indarkeriaren arloko tutore batengandik.



Hezkuntza:

- Hezkuntza Sailak **unibertsitate-ikasketak eta unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko bekak** eskaintzen dizkizu, bai zuretzat, bai zure seme-alabentzat.
- Seme-alabak ikastetxez aldatzen baldin badira, **espediente akademikoak lekualdatzeko tramiteak** egiten dira.

Etxebizitza:



- Baldin eta genero-indarkeriaren biktima bazara eta **Etxebiden** alokairurako etxebizitzaren eskatzaile gisa **inskribatzen bazara**.
 - 10 puntu gehiago izango dituzu denbora jakin batean.
 - Inskribatu egin zaitezke nahiz eta diru-sarrerarik izan ez duzula egiaztatu, edo nahiz eta eskatzen den gutxienera iritsi ez.
 - Ez duzu nahitaez erroldatuta egon behar eskatzen duzun udalerrietan.Kasu batzuetan, etxebizitza bat jabetzan izan arren, baduzu zerbitzu horretara jotzeko aukera.
- Harrera-zentro batean bazaude eta ez baduzu lortzen etxebizitza batean sartzea, zure udalak edo aldundiak **alokairurako etxebizitza bat eskatuko dizu salbuespenez**, baldin eta betekizun espezifiko batzuk konplitzen badituzu.
- Eusko Jaurlaritzaren programaren bateko alokairu-etxebizitza batean bizi bazara, **aldatzeko eska dezakezu, baldin eta arriskuan zaudela jotzen bada**.
- Indarkeriaren ondorioz familia-etxebizitza utzi behar izanez gero, **harrera-zentro batera joateko** eska daiteke, udaletako edo foru aldundietako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan zuzenean, edo Ertzaintzaren bidez, zentro mediko baten bidez, eta abar.

Lana eta prestakuntza:

- Enplegu bat aurkitzeko arreta eta aholkularitza indibiduala behar baduzu, **genero-indarkeriaren arloko tutore bat** izango duzu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko bulego bakoitzean. Galdetu tutore horri buruz.
- **Ibilbide pertsonalizatu bat** eskainiko dizute, lan-merkatuan sartzea eta prestakuntza-ikastaroak egitea errazteko.



Jarri harremanetan hemen:

Gizarte Zerbitzuen
Zuzendaritza Enplegu eta
Gizarte Politiketako Saila
EUSKO JAURLARITZA

Aholkularitza teknikoa
945 01 93 27

Aholkularitza juridikoa
945 01 93 16



violenciacontramujeres@euskadi.eus

Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz.

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/gizarte-zerbitzuak/hasiera/>